Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AD20

# DIGITALIZAZIORAKO COVID-19 LAGUNTZA PROGRAMA
# ÁLAVA DIGITALIZA 2020

| Eskatzeko epea (10. art.) | Jarduerak gauzatzeko epea (7.2 art.) |
|---|---|
| Eskaerak aurkezteko epea deialdia indarrean jartzen denean hasiko da eta funtsak amaitzean edo 2020ko azaroaren 30ean bukatuko da, 14:00etan (lehenengo gertatzen dena). Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://araba.eus). | Oro har, dirulaguntza jaso dezakete laguntza eskaeraren ondoren eta 2021eko martxoaren 31 baino lehen baino lehenago egiten diren jardueretan izandako gastuek. |

### Xedea (1. art.)

Arabako enpresetan digitalizazioa sustatzea, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematearen bidez.

### Erakunde onuradunak (3. art.)

- Egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan duten ETEak edo gutxienez jarduera zentro bat bertan dutenak, eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak.
- Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten autonomoak, baldin JEZean alta eman zutenetik urtebete igaro bada.

### Diruz lagun daitezkeen jarduerak (4. art.)

Bai produkzio prozesuetan, bai merkataritza prozesuetan eta/edo salmenta ondoko prozesuetan lehiakortasuna hobetzeko jarduerak, digitalizazioan oinarritutakoak. Diruz lagundu ahal izateko, jarduera horien ondorioz lehiakortasunean espero diren hobekuntzak zehaztu eta arrazoitu beharko dira.

### Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. art.)

**Diruz lagundu daitezkeen gastuak:**

- Erakunde eskatzaileak aipatutako berrikuntza jardueraren bat kontratatzean sortutako kanpo gastuak eta higiezinak eskuratzearen ondoriozko gastuak.
- Egin beharreko digitalizazio jardueretarako langile kualifikatuak kontratatzeko barne gastuak, 6. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

**Diruz lagun ezin daitezkeen gastuak:** deialdiko 5.5 artikuluan.

### Laguntzen zenbatekoa eta muga (8. art.)

Funtsak **zuzen aurkeztutako eskabideak** jasotako hurrenkera zorrotzean banatuko dira, betiere instrukzio organoaren iritziz ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aurrekontu zuzkidurak horretarako aukera ematen duen bitartean.

Dirulaguntzen ehunekoa:

| | Dirulaguntzaren gehieneko % | Gehieneko muga | |
|---|---|---|---|
| Kanpo gastuak | % 20 | 15.000 € | Guztira, 20.000 € gehienez |
| Kontratazio berrien ondoriozko barne gastuak | % 20 | 15.000 € | |
| Higiezinak eskuratzea | % 10 | 10.000 € | |

1. Enpresak edo autonomoak Álava Innova 2020 programarako dirulaguntza eskatu badu, kanpo gastuetarako eta barne gastuetarako dirulaguntzaren ehunekoa % 30ekoa izango da kasu bakoitzean, Álava Innova deialdian aurkeztutako eskabidean sartu gabeko jarduketetarako.
2. Jarduerek dirulaguntza jaso ahal izateko, onetsi behar den gutxieneko dirulaguntza zenbatekoa 1.500,00 euro da.

### Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea (13. art.)

- Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onetsitako dirulaguntzaren % 30, ebazpena onetsitakoan eta erakunde onuradunak 12. artikuluan aipatzen den **onarpena aurkeztutakoan** ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.
- Bigarren ordainketa, % 60koa, aurrez egindako aurrerakina justifikatu ondoren ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa; horretarako, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak, egoitza elektronikoaren bidez, justifikazio agiriak aurkeztea, **2020ko abenduaren 29an amaituko den epean**, egun hori barne (13.3 art.).
- Azkenik, gainerako % 10eko hirugarren ordainketa bat egingo da, eta justifikatutzat joko da dirulaguntza. Horretarako, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak dirulaguntza deialdiaren 13.3 artikuluan aipatzen diren **gainerako justifikazio agiriak** aurkeztea, **2021eko maiatzaren 3an amaituko den epean**, egun hori barne.

### Esleipen araudia eta araubidea

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 373/2020 Erabakia.
Dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira (1. artikulua).

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saila**

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

Probintzia plaza 5, 1. solairua, 01001 Gasteiz

**Informazio gehiago:**

www.araba.eus

Emaila: digitaliza@araba.eus

Europar Batasuna
Unión Europea

Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Ganapenerako Europar Funtsa (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"